

## **Emakumeen ahalduntzea astintzera datoz Jabekuntza Eskolako udazkeneko ikastaroak**

**Andoainen, 24-09-03.-** Andoaingo Udalak denbora darama emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa sustatzen hainbat erraminten bitartez; horietako bat da emakumeen Jabekuntza Eskola. Bertan antolatzen diren egitasmo eta ikastaroen bitartez, lortzen dira, besteak beste, emakumeen ahalduntzea, emakumeen izaera autokontzientea, autoestimua lanketa, gaitasun propioak ezagutzea, espazioen berreskuratzea, etab.

Eskola honen bitartez gauza asko lortzen ditu emakumeak, besteen artean, elkar ezagutzea, espazioak sortzea, sareak jostea eta gozamenerako guneak bilatzea.

Ikasturte berria abiatzen dugun honetan, horretarako aukera izango dugu emakumeek. Guztira 11 ikastaro eta lantegiz osatutako programa aurkeztu dugu Udazkeneko ikastaroen baitan, adin, gustu eta aukera guztietarako egindakoak. Horietako batzuk aurreko edizioetan arrakasta izandakoak dira, beste batzuk berriak.

Gogoratu nahi dugu ikastaro guztiak doakoak izango direla; plazak mugatuak dira, beraz beharrezkoa izango da alde zuzeneko izen-ematea; halaber, lehentasuna izango dute Andoainen erroldatutako emakumeek edo ikastaroa eginda ez dutenek. Zaintza zerbitzua ere jarriko da, hala behar duten emakumeentzat.

Informazioa eskatu edo izen-emateko: 943 30 08 30 (Berdintasun lansaila) edo [berdintasuna@andoain.eus](mailto:berdintasuna@andoain.eus).

### **Aurkezpen ekitaldia, Plaza Morean**

Aurten, lehenbizikoz, Jabekuntza Eskolaren aurkezpen ekitaldia egingo da. Irailaren 6an, ostiral honetan izango da, 18:00tan, Plaza Morean.

Parte hartuko dutenen artean daude Euskal Herriko Batukada Feminista Sarea eta Beatriz Egizabal 'Magma Mia' bakarrizketa aurkeztuz.

Herritar guztiak animatu nahi ditu Udalak bertan parte-hartu dezaten.